

SOS Arrazakeriari gezurretan aritzea leporatu dio Gipuzkoako Diputazioak

Etorkin adingabeekin ari diren 30 hezitzailek nabarmendu dute Debako Oilur zentroak helburuak bete dituela

Mikel Peruarena Donostia

«Nahikoa da» esateko ordua dela iruditu zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Adingabe etorkinak babesteko egiten duen lana «etengabe kalumniatzen» dela azaldu du, eta «bakean lan egiten uzteko» eskatu dio Gipuzkoako SOS Arrazakeriari. Iragan astean salaketa egin zuen SOS Arrazakeriak. Adierazi zuen etorkin adingabeentzako Debako Oilur zentroan adingabeen eskubideak urratu direla, eta Diputazioari eskatu zion «akatsetatik» ikasteko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen zuzendari Jose Ignacio Insaustik ahoan bilorik gabe erantzun du: «SOS Arrazakeriak informazio oker, partzial eta faltsua eman du Endoia zentroari buruz».

Prentsaren aurrera agertu zen atzo Insausti. Aldamenean izan zituen etorkin adingabeekin lan egiten duten Bideberri, Dianova, Horbel eta Urgatzi-Babesten enpresetak 30 bat hezitzaile eta langile. Mahaian eserita etorkin adingabeen programaz arduratzen den Yolanda Perez eta Urgatzi-Babesten enpresako Mikel Lizarralde eta Agurtzane Garcia. Urgatzi-Babesten enpresak kudeatzen ditu Debako Oilur eta Elgetako Aixola zentroak. Debako zentroak «bere helburua» bete duela adierazi, eta bertan egindako lana defendatu dute guztiek.

«Komunikabideetan agertu denaren larritasunagatik agertu gara hedabideen aurrean», adierazi du Insaustik, prentsaurrekoaren berezitasuna nabarmenduz. Diputazioak eztabaida saihestu duela ohartarazi du, «SOS Arrazakeriak pertsona batzuek aha-



Eserita, Perez, Lizarralde, Insausti eta Garcia, atzean hezitzaileak dituztela, atzo, Donostian. JAGOBA MANTEROLA / ARP

legina egin dute, ordea, hezitzaileen lana hondatzeko, eta hezitzaileen lana zaltzatzeko jarri du». Eta horri erantzun argia eman nahi izan dio Diputazioak. Insaustik azaldu du eztabaida mediatioak ez diola gaiari eta hezitzaileen lanari mesederik egiten. Baina hezitzaileen lana eskertu eta babestu beharra dagoela uste du: «Erabat minduta eta nazkatuta daude hezitzaileak». Oilur zentroan lanean aritutako hamalau hezitzailek ere agiria aurkeztu dute, Debako zentroko lana babesteko, eta SOS Arrazakeriari erantzuteko.

«Mesede egin dio sareari»

Oilur zentrotik «30 eta 40 gazte artean» igaro dira. Lauk izan ezik, beste guztiek gizarteratzeko bidea hartu dutela jakinarazi du Insaustik: «Gutxi batzuek ez dute aukera baliatu. Ez dute nahi izan, edo, agian, ez diete utzi. Baina inork ezin du ukatu aukera eman diegula. Debako programak mesede egin dio sare guztiari». Aixola zentroko zuzendari Agurtzane Garcia baiezatu egin du hori. Debako zentroak «lan ona eta eraginkorra» egin duela azaldu du.

Etorkin adingabeak artatzeko sarearen barruan hiru zerbitzu daudela oroitarazi du Insaustik: oinarritzakoa, terapeutikoa eta espezializazio handikoa. Azken programa horren barruan sortu zen Debako Oilur zentroa. «Portaera gatazkatsu disruptiboak, kontsumo arazoak, gizartera egokitzeko zailtasunak eta delituak» egin zituzten hogei bat gazterentzat zabaldu zuten. «Debako zentroaren funtzioa adingabeak berregokitzeko da», zehaztu du Insaustik. Programa berezi guztietan, bai helduekin, bai adingabeekin, «pertsonek berreskuratzea» izan ohi da lehen ahalegina, Insaustiren hitzetan, «gero beste heziketa eta aisialdi jarduerak batzuei ekiteko. Lehenik isolatu egin behar da arazoak dituen pertsona hori, izaera lantzeko eta bere arazoei begira jartzeko».

«Adingabeen eskubideak dituzte, baina baita betebeharrak ere», nabarmendu du Insaustik: «SOS Arrazakeriak egin duen txosten horretan ez zaio aipamen bakar bat ere egiten adingabeen betebeharrari». Hezitzaileak eta beste zerbitzueta adingabeak

SOS Arrazakeria: «Diputazioak ez die gure salaketei erantzun»

Gipuzkoako Diputazioak agerraldia egin eta ordu gutxira erantzun du SOS Arrazakeriak. Nabarmendu du Diputazioak ez diela taldearen «salaketa zehatzei eta Arartekoaren kritikei erantzun». Adierazi du taldeak ez duela hezitzaileen lana zaltzatzeko jarri, kontrara, hezitzaileen lana «gako» dela. Gainera, ohartarazi du eskubideak ezin direla bete beharren mende jarri. Eta erantsi du zerbitzuok publikoak izan behar dutela, ezin dutela enpresa pribatuaren esku egon.

«arriskuan» egon izan direla nabarmendu dute, eta hori ez dela SOS Arrazakeriaren txostenean ageri. Debako gazteei tratu txarrik eman izana ere ukatu egin dute. Mikel Lizarralde ohartarazi du berriz ere salaketa anonimoak jasotzen badituzte, epaitegietara joko dutela.

Enpresen ustez «onartezinak» dira jangeletako langileen lan eskariak

Negoiazteko borondatea beti izan dutela diote, baina sindikatuek ez dutela jarrera aldatu

Erredakzioa Donostia

EAEko kudeaketa zuzeneko eskola jangeletan zerbitzua eskaintzen duten enpresei «gehiegizkoak eta onartezinak» iruditzen zaizkie sindikatuen eskariak. «Gure borondatea beti izan da negoziatzea, eta hainbat proposamen eraikitzaile egin ditugu sektorea hobetzeko. Baina, zoritxarrez, sindikatuen aldetik ez da jarrera aldatetarik izan», adierazi dute guraso elkar-teei, ikastetxeetako zuzendari-teei eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidalitako eskutitzean.

Enpresek azaldukoaren arabera, egindako azken eskaintzan datozen bi ikasturteetan soldata igoera Hezkuntza Sailekoen parekoa izatea proposatzen zieten kudeaketa zuzenekoek. «Gainera, hainbat gehigarri ezartzea proposatzen genien, tartean prestatutzari eta zerbitzuaren hobe-kuntzari lotutakoak. Horri esker, bi aldean arteko soldatak nahiko parekatuko lirarteke». Gogorarazi nahi izan dute, gainera, lan hitzarmena berritzea dagokien langileek %70eko soldata igoera izan dutela azken bost urteetan. Gainera, «aurreko lan hitzarmenean gutxitu egin zen homologazioaren baldintza».

Erabateko parekatzea nahi dute, haatik, sindikatuek. Horretarako, %5eko soldata igoera eskatzen dute. Lanaldia luzatzea ere eskatu dute, txostenak egin ahal izateko. «Baldintza hori ere onartu dugu, eta prest gaude egiten dituzten beste eskarien inguruan hitz egiteko».

Sindikatuek, ordea, herenegun aurreratu zuten zail ikusten dutela gatazka konpontzea, eta salatu zuten patronalaren aldetik ez dagoela borondatearik negoziazio egutegi bat zehatzeko. Gainera, uste dute haien jokabidea bidegabe dela, «langileen diskriminazioaren eta soldata bikoitzaren planteamenduei» eusten dietelako.

Hori kontuan hartuta, aste honetako bigarren greba eguna egingo dute gaur, eta kalera irten-go dira protesta egitera. 60.000 ikasle ingururi eragingo die horrek. Gatazka konpondu ezean, hurrengo bi asteetan ere bigarren greba egingo dute.

↓ Debako zentroko hezitzaileen agiria

Debako Oilur zentroan lan egindako hamalau hezitzailek, SOS Arrazakeriaren txostenari erantzuteko kaleratu duten agiriaren pasarteak:

- (...) Endoia egoitzako programa espezializatuaren lehenengo faseak emaitza onak izan ditu, eta aurreikusitako funtzioa bete du (...).
- Egoitza honetan ez zaie sekula tratu txarrik eman adingabeek. Bertan bizitako adingabeek jarrerara arazo larriak zituzten, eta

etengabe (...) izaten genituen mehatxuak, erasoak eta irainak. Hori ez du aipatzen [SOS Arrazakeriaren] txostenak (...).

- Gure profesionaltasuna zaltzatzeko erantzukizunak beren gain hartzea. Betebeharrak dituztela irakatsi egin behar zaie (...).
- Gu ere, zuek bezala, kezkatuta gaude adingabe horiek haserre askoren jomugan daudelako, eta horrek ere gehiago zaildu die elako berez zaila den gizarteratzeko prozesua. Baina uste

dugu zentroarekin zerikusirik ez duten erakundeen jarrerak (SOS Arrazakeria haien artean) ekarri duela, hein handi batean, adingabe horiek haserre askoren jomugan egotea (...).

- (...) SOS Arrazakeriari eskatzen diogu (...) proposatzeko heziketa neurri zehatzak jarrerara arazo larriak dituzten adingabeen jarrerara erasokorrez kontzientzia hartzeko, erantzukizunak hartzeko eta jarrera horiek bideratzeko.